

Curriculuma

Geni del Vilar

Kazetaria da eta Sistema Interaktiboan Diseinuan masterra du. Telebistan (TV3) bost urte igaro zituen gidoigintzan eta saioen zuzendaritzan. Handik, CCMA-ren I+G+B proiektuen buru izatera pasa zen. Hain zuzen, nazio mailako eta nazioarteko zerbitzu digital eta interaktibo berriein erlazioa zutenak: telebista interaktibo eta hibridoa, mugikorrak, errealitate gehitua, hedabide sozialak...

CCMA-ren CREA-ko, Centre de Recerca de l'Audiovisual, zuzendariordea izan zen eta pare bat urtez TV3-eko Marketing Digitaleko arduraduna.

Irakasle lanean ere aritua da, ikastaro eta master ezberdinetan eta Ikus entzunezkoen Elkarreragintasuna izeneko lehenengo graduondokoa (Universitat Politècnica de Catalunya) zuzendu zuen.

Gaur egun, TV3-ko eta Catalunya Radioko produktu digitalen (webgunea, APPak eta konektatutako telebista) estrategia eta gauzatzea zehazten du.